

## EUSKOTRENEK ABENDUAREN 22AN VITORIA-GASTEIZKO TRANBIAREN ZIRKULAZIOA MOZTUKO DU ERDI MARATOIA DELA ETA

Abenduaren 22an Vitoria-Gasteizko tranbia zerbitzuak eragina izango du Erdi Maratoia dela eta. Parte hartzaileen igarotzea errazteko 10:20tik 11:15era zirkulazioa erabat moztuko da. Une horretatik aurrera tranbiaren zerbitzua berrezarriko da nahiz eta Angulema eta Legebiltzarra artean mozketa partzial bat izango den. 12:20an tranbiak ibilbidea osoan normaltasunez ibiltzen hasiko dira.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan, konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunean, Euskotreneko APP ofizialean, eta @euskotrenEJGV twitter gunean.

Igorpen data: 2019ko abenduaren 19a

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO